

Arte Plastikoak eta Ikusizkoak

Kulturaren Euskal Planaren Arte Plastiko eta
Ikusizkoen taldearen bileretan oinarritutako
txostena

2003ko Urria

INDARRAK	3
AHULEZIAK	4
AUKERAK	8
MEHATXUAK	10
JARDUNBIDEAK	12
LEHENTASUNEZKO JARDUERA ILDOAK	19

INDARRAK

Trebakuntza eta ikerketa

- ◆ Batxilergo Artistikoa ezartzea.

Sorkuntza

- ◆ Artea giza baliabide sortzailea, ekonomikoa, urbanistikoa eta abar da.
- ◆ Euskal Autonomia Erkidegoko panorama artistikoaren benetako aktiboa artistek eta gainerako kultur agenteek eratzen dute: horietako askok nazioartean izan duten onarpen apur batekin egiaztatu ahal izan dute hemen bertan izan duten ospea.
- ◆ Aprobetxa daitezkeen azpiegitura garrantzitsuak. Artearekiko sentsibilizazio handiagoa.

Produkzioa

- ◆ (Benetan ekoizpen artistikoa laguntzera bideratutako politikarik ezaren aurrean) azken urteetan xede horrekin sortu diren hainbat egitura arin.
- ◆ Artelekuren kudeaketak eta garapenak ekoizpen- eta banaketa-sare sendoak aktibatzen lagundu du.

Banatzea eta erakustea

- ◆ Azken 15 urteetan eratu den kultur kudeatzailearen figura agertzea.
- ◆ Proiektuen eta artisten benetako sustapena.

Kultur kontsumoa

- ◆ Euskal Herriko sorkuntza artistikoarekiko jarrera aldatu egin da. Gaur egungo euskal artistei mesede egin dien gaietako bat belaunaldien arteko ezagutza transmititzea izan da; horrez gain, kulturalki berariaz "Euskal Herrikoa" dena erreferente da gaur egungo artean, beste erkidego batzuetan gertatzen ez den bezala.

AHULEZIAK

Trebakuntza eta ikerketa

- ◆ Arduraz ikusten da heziketa plastikoak eta artistikoak ikasketa-planetan geroz eta leku gutxiago hartzea.
- ◆ Kultura kudeatzeko formula berriak eta produkzioarako edo hedapenerako ekimen berriak bilatzeko ikerketagune edo zentrorik ez izatea.
- ◆ Arte plastikoaren eta ikusizkoaren eremuan Unibertsitateak zer paper izan behar duen definitu gabe izatea.
- ◆ Ikerketa artistikoaren gehiegizko burokratizazioa. Ikerketa artistikoaren inguruan lan egiten duten egiturek diru-laguntza publikoen bidez eusten diete beren jardueri. Funtzionamendu hori prekariotasun- eta hauskortasun-faktore bat da, eta sortze-lan abangoardistenen bultzada, arte gaztearen bultzada eta multimedia-ikerketaren aukera berrien bultzada daramaten ekimenen kontra doa.

- ◆ Kultur kudeaketan espezializatutako pertsonala trebatzeko (prestakuntza eta profesionaltasuna) baliabide-eskasia nabarmena, eta horrek arte plastikoen eta ikusizkoen eremuan duen eragina. Sarritan, Administrazioak ez du profesional aditurik diru-laguntzak emateko orduan erabaki koherenteak hartu eta Euskadi edo euskal artea estatuan edo nazioartean sustatzeko helburuarekin proiektu bat edo bestea hautatu ahal izateko.
- ◆ Gaur egungo euskal artisten jarduera plastiko eta ikusizkoaren garapenaren joera nagusien ezagutza sistematizaturik ez izatea.
- ◆ Beste kultur agenteen definiziorik ez izatea, artisten beraien definiziorik ez izateaz gain.
- ◆ Ia ez dago euskal arte-kritikari eta komisarioen belaunaldi berririk. Eta, egongo balira ere, ez lukete lan egiteko aukera askorik izango.

Sorkuntza

- ◆ Mota guztietako proiektuen masifikazio oportunistak, eta horrek dakartzan hautatze-, aurrekontu- eta burokrasia-arazoak eta euskal merkatuaren sare komertzialaren edo/eta erakunde-sarearen ezgaitasuna hain artista-kopuru handia xurgatzeko.
- ◆ Modernotasunaren irizpide akademizista bakar gisa etengabeko berritzea erabiltzea.
- ◆ Azpiegitura handietarantz jotzeko arriskua. Produktu horiek saltzeko ahalegin ekonomiko handiak egin beharrek sormen-bulkada txikiagoa izatea eragiten du.
- ◆ Artista askok beren "mikromunduan" bakarrik lan egiten dute, beren lantegietan sartuta eta inolako babesik gabe, ia kokapen legalik ez duen egoera laboralean eta onarpenik gabe eta laguntzarik gabe.

- ◆ Hainbat administrazio publikoren kultur politika tradizionalen erakusketa, antzezpena edo inaugurazioa lehenesten dira, eta sortze-lanaren erantzukizuna (artelan bat ekoiztearena, alegia) artistaren gain uzten da; gaur egun, ordea, artelanak ekoiztea eta hedatzea bata bestearen menpeko jarduerak dira.
- ◆ Sortzailearen eta hartzailearen arteko konexioa egingo duen benetako sare zibilik ez izatea.

Produkzioa

- ◆ Produkzio artistikoaren formulazio berrietara egokitutako laguntza- eta finantziario-irizpiderik ez izatea.
- ◆ Produkzio-nozioa Eusko Jaurlaritzak beste kultur sektore batzuetarako dituen aurrekontuetan agertzen da. Arte plastikoetan, ordea, ez da zehazki izendatzen.

Banatzea eta erakustea

- ◆ Batetik, borondate politikoaren ekimenez sortutako eta, bestetik, gizarte zibiletik jaiotako ekimenez arteko aurrekontu-desorekak (zalantzazko interesa duten erakusketa erraldoi garestiak eta intereseko proiektuak, baina ballabiderik gabeak, batera existitu ohi dira).
- ◆ Eite artistiko-kulturaleko eduki gutxi EITBn.
- ◆ Promozio artistikoaz bestelako xedeak (garapen ekonomiko edo turistikoa, esaterako) dituzten hedapen- eta erakusketa-jarduerak finantziatea.
- ◆ Kultur esperientzia guztiak komertzializatuz kultura merkataritza-arloan sartzeko joera. Kultur esperientzia horiek enpresa handien jomuga dira, esperientzia horietan guztietan sartzeko baitira berehalako errentagarritasuna duten produktu bihurtzeko.
- ◆ Artistak arazoak izan ohi ditu Euskal Herritik kanpo ezagun izatea lortzeko.

- ◆ Artista bakoitzaren egoera kategoriaka bereizten duen legerik ez izatean, esate baterako, izugarrizko nahastea sortzen da; ospe handiko artisten lana eta Arte Ederretako Fakultatetik irten berri diren autore gazteen lana (artelanak promozionatzen eta saltzen zailtasun handiekin hasi berri direnena) nahastu egiten dira.

Kultur kontsumoa

- ◆ Gizarteko segmentu garrantzitsu batzuentzat zenbait arte-motak ospe dezente galdu dute, eta gertaera horri arduraz begiratzen zaio; horrekin batera, ikusten da museoetara jendetza handia (lehenago inoiz izan ez den bezainbestekoa) joaten dela.
- ◆ Arte-merkatuak ez izateak (hau da, ekonomikoki bideragarri diren galeria profesionalak eta bildumagile pribatu adoretzuak ez izateak) EAEn artea eratzeko zirkunstantziak baldintzatzen ditu.

Kultur politika

- ◆ Arteaz diharduten erakunde eta departamentu zenbaiten arteko komunikazio-linea urriak; ahaleginen dispersioa ekartzen du horrek.
- ◆ Ekoizpena, hedapena eta trebakuntza bultzatzearen inguruko erabakiak hartzeko unean erakundeek ekintzen koherentzia bermatzera bideratutako prozedurarik eza. Azken finean, kultura kudeatzeko eredu eraginkor eta egokitu baten falta.
- ◆ Jarduera artistikoa garatzeko kondizioen prekariotasuna: kontraturik eza, ordainsari urriak, lege aldetiko babes-gabezia eta abar.
- ◆ Administrazio publikoaren aldetik gainditu gabeko irakasgaia: praktika artistikoen promozio eraginkorra eragotzi eta artista eta sortzaileen beharrei geroz eta gutxiago erantzuten dien irizpide paternalista zaharkituetan geratuta dagoen antolatze-egitura

modernizatzea. Desfasea dago administrazio publikoan arteari buruz ezarrita dagoen ideiarene eta gaur egungo praktika artistikoaren artean.

- ✓ Irudimen falta "kultur politikaren" eremuaren barnean mugimendu, keinu eta ekimen ez-instituzionalak sartzeko formula egoki bat asmatzeko orduan.

Aukerak

Trebakuntza eta ikerketa

- ◆ Euskal erakundeek duten informazioa erabiltzea Euskal Herriko gaur egungo sortze-lanaren egoera hobeto ezagutzeko.
- ◆ Ikerketa oinarritzat duten programak koordinatzeko ataza burutzea; horko kate-maila bakoitzak (ekoizteak, erakusteak eta abarrek) dimentsio trebatzailea ere izango du.
- ◆ Jardunbide zehatzekin trebakuntza hobetzea; sortze-lana eta ekoizpena finantziatzea bultzatuko duten eta gizarteko hainbat sektoreekin batera arituko diren sortzaileentzat eta kudeatzaileentzat eskola-lantegi profesionalak bultzatzea, esaterako.
- ◆ Ikusizko arteen sektoreari dagokionez, artearen eredu hegemonikoetatik urrunduta lan egiteko laborategien beharra (esku-hartze publikoaren bidez soilik konpon daiteke behar hori).
- ◆ Funtsezkoa da unibertsitatean gaur egunera arteko arte garaikidearen historia irakasteko eta artearen teoria eta kritikaren irakasgaiak ezartzeko bideak sorraraztea. "Artearen Historia" irakasgaien ez dago lekuri arte elektronikoarentzat.
- ◆ Heziketa koordinatzeko erakunde bat sortzea.

Sorkuntza

- ◆ Sorkuntza artistikoaren beharrei era kritikoan eta pertsonalizatuan erantzuteko ahalegina egitea.

Produkzioa

- ◆ Obrak ekoizteko unean enpresa pribatuari sarrera ematea (mezenasgoa).
- ◆ Kultur Agente pribatuek aukera izatea Proiektuen Bulegoan parte hartzeko. Era egokian koordina litezkeen formula misto pribatuen/publikoen aukera ere badago.
- ◆ Ulertu behar da kontua ez dela ekoizpena/erakusketa/banaketa lehenestea, baizik eta sektore bakoitzaren beharrak berriro ere sinkronizatu eta horren arabera ekitea.

Banatzea eta erakustea

- ◆ Artistak Euskal Herritik kanpo ezagutzera emateko aukera.
- ◆ Kultur jarduketaren eredu bat sortzeko beharraren kontzientzia hartzea. Eredu horrek, alde batetik, bertako ingurunearen behar zehatzei erantzun behar die, eta, bestetik, bertakotik harantzago joateko gai izan behar du.

Kultur kontsumoa

- ◆ Arteak beste paper bat bete lezake gure ingurunean, eta, hain zuzen, betetzen du; nola egiten duen ulertzen ikasi behar dugu.

Kultur politika

- ◆ Administrazioak gehiago kontatu beharko luke artea bultzatzeko ahalegin handia egiten duten kultur agente pribatuekin. Proiektu artistikoak ikasi, aztertu eta hautatzeko unean, sektoreko profesionalak kontuan hartu behar dira.
- ◆ Euskal kultur eta arte-sektorea deskribatzen duten estatistiken bilduma sakona izatea, hau da, Euskal Kulturaren Behatoki Estatistikoa izatea, beharrezkoa da.

- ◆ Arte Garaikidearen Euskal Funtsa sortzearen beharra. Arte garaikidearen funts bat izanda, artista berriek museoetan egiten duten presioa saihesten da, museoetan sartu nahi izaten baitute osperik izan gabe. Era horretan, museoek zalantzazko etorkizuna duten "artisten" lanak erostea ere saihesten da.
- ◆ Artxibo bat eratzea eta artearen eta kultura garaikidearen eremuan sortzen diren erronkei eta aldaketei aurre egiteko gai izango den hiztegi berri bat behar bezala eratu eta berriz definitzea.
- ◆ Proiektuen Bulegoak beste diru-laguntza batzuk eman behar lituzke, bertako proiektuetako agenteek eta estatukoek nahiz nazioartekoek aurkez litzaketan proiektu zabalak barne hartuko dituztenak, eta euskal kulturaren eta artearen sustapena isilpean lagundu behar luke. Garrantzitsua da diru-laguntzak badirela publikoki hedatzea eta sektoreko agente guztiei informazioa zabal ematea, horrela mundu guztiak izan dezan diru-laguntzak eskatzeko aukera.

Mehatxuak

Sorkuntza

- ◆ Sektorea garatzeko/bultzatzeko aurrekontu txikia.
- ◆ Gehiegizko enfasia jartzen da artistarengan oinarritzko ardatz gisa hartuta. Arteak aldatu egin ditu bere helburuak eta bere prozesu sortzaileak, eta lehen artea garatzen zen disziplina eta kontzeptuen arteko mugak ezabatu dira; hau da, artistaren papera aldatu egin da, orain beste agente batzuek aktiboki hartzen dute parte eta batzuetan baita aipatu diren prozesu sortzaileak berak aldatu ere. Artearen kontzeptu erromantiko eta modaz pasatuak ez dio arteari berari soilik eragiten, autoreei ere eragiten die; orain gertaera artistikoaren sorkuntzan beste faktore aktibo batzuk ere sartzen dira.

Banatzea eta erakustea

- ◆ Azpiegitura handietaranzko joerari eustea.
- ◆ Museoen eta haien zuzendaritzen gaur egungo politizazioa.

Kultur politika

- ◆ Sortze-lan garaikideari esleitutako aurrekontua beretzat hartuko duen erakunde burokratikoaren sortzeko arriskua.
- ◆ Proiektuen Bulegoak ezin lezake diru-laguntzen kontrola bere gain hartu eta aldi berean politika artistikoen Behatoki izan; hau da, ezin da epaile eta parte-hartzaile batera izan. Bulegoa erabaki politikoei loturik badago, kontrol politiko hierarkikoa desitxuratzeko ezintasuna sortzen da.
- ◆ Partaide izan diren karguak berriz izatea.
- ◆ Kultur jarduketaren norabide koherentea koordinatzeko borondatea merezi duen ahalegin instituzional eta ekonomikoarekin konklusioei erantzun eta, denborarekin, hor bertan mugitu gabe ez geratzeko, jardunean jardunean gauza berriak asmatzeko gai izatea.
- ◆ Arte plastikoaren arloan oso jardunbide gutxi eta oso mugatuak daude. Sortze-lanari eta zabalkundeari ematen zaizkion laguntzetako asko erakundeei ematen zaizkie; sektore pribatuari gehiago lagundu behar litzaioke, askotan ezin baitu ezer egin ahalmen finantzarioz ez duelako, nahiz eta ekimen interesgarriak bultzatzen dituen.

3. JARDUNBIDEAK

1. Trebakuntza, heziketa eta ikerketa bultzatzea

Helburuko populazioa: artistak

- Hiru urtean behin berrius daitekeen eta epe ertainera eta epe luzera hutsune nabarmenenak zuzenduko dituen ikerketa- eta trebakuntza-plana. Hauexek izan daitezke jarduera-proiektu batzuk:
 - Bitartekotza kritikoen eremu hedatuari buruzko sareko mintegi-laborategia.
 - Ikerketa- eta trebakuntza-programa (bekak, trebatze-egonaldiak, eta abar).
 - Arte, kultura eta pentsamendu garaikidearen gaineko edizioa paperean eta formatu digitalean egiteko proiektua, pixkanaka euskal eremutik harantzago sendotuko den erreferentzia izateko.
- Aurrekontu-partida bat izatea graduondoko beketarako eta beste gobernu batzuekin eta nazioarteko erakundeekin truke-programak bideratzeko, euskal artearen eremuan profesionalak trebatzeko helburuarekin elkarlanerako hitzarmen egonkorak eginez.

Helburuko populazioa: ikasleak

- Ikasketa-tarte ez-unibertsitario guztietan heziketa artistiko eta ikusizkoa koordinatzeko erakunde bat garatzea eta Unibertsitateak heziketaren, ikerketaren eta sortze-lan independentearen eremuan eta kultur jardueraren sortzailer gisa duen funtzioari buruzko eztabaida bultzatzea.

Helburuko populazioa: profesionalak

- Heziketa-politikak
 1. Kudeatzaileak produktu artistikoen marketinean trebatzea.
 2. Komisarioen euskal sarea eratzea.
 3. Nazioarteko marketinean espezializatu diren bekadunak euskal merkatuaren merkataritza-sarean sartzea.

4. Informazio, planifikazio eta kudeaketa artistikoaren sistemetako espezialistak trebatzea.

- Kultur bitartekotzan ezaugarri hauek izango lituzkeen master-motaren bat sortzea: profesionala, bere funtziorako egokitua, nazioarteko bokazioduna (ikasleak, irakasleak), nazioarteko sortzaileak gonbidatuko lituzkeena esperientziak trukatzeko eta lurraldeko panorama ezagutzeko. Sarea osatzeko, komunikazio-fluxuak eratzeko eta mugak irekitzeko modu interesgarria da.

-

2. Sorkuntzarako eta produkziarako laguntza publikoa

Helburuko populazioa: zentroak, proiektuak, agenteak

- Artistentzako diru-laguntzak, arlo hauetan aukera izan dezaten:

- *Sorkuntza*
 - espazioa
 - materiala
- *Promozioa*
 - Katalogoa
 - Estatuan eta nazioartean erakustea
 - Sorkuntza materializatzea
- *Epe luzera hedatzea*

- Gizarte zibileko kultur agenteei proiektuak egiteko diru-laguntzak ematea.
- Sorkuntza garaikidearekin konpromisoa hartuta dauden zentro eta ekimenei pizgarriak ematea; euskal ingurune sozial eta kulturalarekin erlazionatutako artisten lanarekin ere konpromisoa hartu beharko dute halaber.

- Baliabide publikoak kudeatuko dituen erakundea, Proiektu Bulegoa, eratzea; Bulego horrek proiektu zehatzei laguntzak emango lizkieke eta beste bide batzuetatik Jaurlaritzaren laguntza egonkorrik ez duten ekoizle eta kultur agenteei uneko diru-laguntzak emango lizkieke.

- Gaur egun Eusko Jaurlaritzak arte plastikoen eta ikusizkoen promozio- eta hedatze-alderdiei ematen dien lehentasunaren aurrean, sortze-lan eta ekoizpen artistiko ikusizkoari ematen zaion laguntza areagotzea.
- Administrazio publikoaren eta gizarte zibiletik datozen proposamenen arteko "bitartekaria" izango duen bitartekotza-protokoloa ezartzea; horrela, ekoizpena, hedapena eta trebakuntza laguntzeari dagozkion ekintzen eta erabakien koherentzia bermatu ahal izango da.

Erakunde kudeatzaile autonomoa:

- Egunetik egunera espezialista-multzo batek, eta ez pertsona bakar batek, bere egin beharko lukeen ekoizpen-azpiegitura baten beharra dute artisten proiektuek, eta premia horri erantzungo dioten azpiegiturak sortu behar dira.
- Bitartekotza-protokoloa eta proiektu-bulegoa sortzeko irizpide argi, plural eta demokratikoak ezartzea. Horretarako, bai lantzeko unean eta bai eratzeko unean, komeniko litzateke gaur egungo errealitateak barne dituen sentzibilitate eta aukeren aniztasuna kontuan hartzea.
- Proiektu Bulego baten aurrekontuaren bideragarritasuna ezagutzea.

Erosketa-politika bideratzea:

- EAEko arte garaikidearen bilduma publiko guztien jakitun den bitartekotza sortzea, erosketen erakunde erregulatzaile baten bidez erosketen politika orientatzeko eta harmonizatzeke, bilduma ikuspeirik izan gabe artelan asko lehiaketa edo sarien bidez erosten doazen hainbat politika ez-koordinatu, ez oso garbi eta modakaitz eduki ordez.

3. Artisten lan-egoera erregulatze eta artearen enpresa-sareari laguntzea

Lan-egoera:

- Galeria, artista, ekoizle eta erosleen arteko harremanetan gertatzen diren arautu gabeko erabilerak frogatzea. Ebatzi beharreko anomalia asko daude.
- Artea produzitzeko eta merkaturatzeko egituraren protagonista guztiak aholkularitza juridiko espezializatu eta sortzailearekin elkartzea produkzio- eta merkaturatze-harremanak burokratizatu gabe arautzeko lege-esparrua ezartzeko.
- Artistaren eta erakundearen arteko harremanetan protokoloa ezartzea: lan-kontratuak egitea, artistaren errealitatearekin bat datozen arau fiskalak doitzea, eta abar.

Kultura kudeatzeko lanpostuak arautzea:

- Kultura kudeatzeko lanpostuen erregulatzeko sistema bat arautzea: aretoetako eta museoetako zuzendariak (karguak izendatzea, karguen iraupena, haien kudeaketaren interesa, haien kudeaketaren kalitatearen balorazioa). Horrela, bakoitzaren programaren araberrako garapena bermatuko litzateke, gorabehera politikoetatik at.

Enpresa-sarea:

- Aipatu den lege-esparrua aplikatzen duten galerientzat zerga-neurri abantailatsuak martxan jartzea, ingurunea babesteko arauak errespetatzen dituzten enpresei "labelak" ematen zaizkien modu beretsuan.
- Euskal merkatuaren jarduera bultzatzea arlo fiskalaren aldetik.
- Beharrezkoa da artisten ibilbide profesionala bideragarri izan dadin bideratutako jarduerak egitea. Artista gaztea laguntza publikoez baliatu daiteke puntu bateraino; puntu horretara iritsita, profesionalki garatzeko aukera izan behar du. Horretarako, beharrezkoa da galerien enpresa-sarea eta artearen merkatua izatea. Mezenasgo-lege batek mesede egin lezake. Horrez aparte, profesionaltasuna frogatuta duten galeriei pizgarri fiskalak eman dakizkieke, edo proiektu arriskutsu edo, besterik gabe, atipikoetarako laguntzak eskaini.

4. Euskal artisten kanpoko promozioa

Ekimen publiko eta pribatuak

- Kanpo-merkataritzaren promoziorako politikak:HONEAINO

1. Azoka handietara edo nazioarteko merkatuetara joateko laguntzak.
2. Katalogoak egitea eta hedatzea
3. Aurreplanifikazioaren fasean (mailing-ak, misioak eta abar) intzidentzia izatea.
4. Publizitatea edo/eta zuzeneko merkataritza-kudeaketa erakundeen, museoen, korporazioen, fundazioen, bildumazaleen edo gainerako erosle atzerritarren aurrean.
5. Laguntza-baliabide teknikoan (publizitatearen, harreman publikoen, ikus-entzunezkoen eta abarren) hobekuntzan esku hartzea.

- Komunikazio- eta irudi-politikak:

1. Lehiaketa, Biurteko, Erakusketa, Sari, eta abarretan parte hartzeko laguntzak.
2. Artearen nazioarteko merkatuaren kontzertuan (kritikariak, tasatzaileak, arte-komisarioak, nazioarteko azoken kudeatzaileak, galeristak eta abar) iritzi eta erabaki sorrarazleetara bideratutako komunikazioa areagotzea.
3. Komunikaziorako eta irudia zabaltzeko materiala (galerien gidak, erakusketen planifikazioak eta abar), erosle potentzialen artean zabaltzeko.
4. Iritzi-sortzaile, kritikari, editore, eta abarren alderantzizko misioak.

- Artistentzako diru-laguntzak, hauetarako aukera izan dezaten:

- *Sorkuntza*
 - espazioa
 - materiala
- *Promozioa*
 - Katalogoa
 - Estatuan eta nazioartean erakustea
 - Obraren materializazioa
 - Epe luzerako hedapena

5. Ikusizko arteen informazio- eta ezagutza-sistema

- Euskadin eta artearen eremuan batzen diren hainbat bitartekotzaren (zentroak, komisariatua, kritika, elkarteak eta kudeaketa-ekoizpeneko ekimenak, enpresak, sareak eta abar) errealitate zehatzari buruzko azterketa-diagnostiko bat egiteko beharra.
- Arte-politikaren eremuan erabakiak hartzeko unean euskal erakundeen informazioa gehiago erabiltzeko beharra.
- Sektoreko Informazio Politikak
 1. Artelanak merkaturatzeko Euskal Herriko galerien eskaintzari buruz nazioarteko kanal edo zirkuituetara bideratutako informazioaren sistematizazioa.
 2. Eremu honetako jarduera guztiak bildu, sistematikoki eguneratzen den euskal sorkuntza garaikideari buruzko berriazko informazio-sistema propio eta zorrotz baten barruan betiere (Arte Plastiko eta Ikusizkoen Euskal Behatokia).
 3. Internet bidezko hedapena bultzatzea.
- Arte-eremu osoaren benetako errolda egin: artistak, espazioak, jarduera trebatzaileak, museoak eta arteguneak eta abar. Eta haien tipologia eta puntu sendoak eta ahulak aztertu. Behin prozesuak, protokoloak eta abar, aztertuta, benetako inplikatupei (artistei) kontsulta egin, era pluralean, sektarismorik gabe eta ahalik eta modu zabalenean.
- Euskal Autonomia Erkidegoko sorkuntza plastiko eta ikusizkoari buruzko Liburu Zuria egin. Txosten horren bidez, Eusko Jaurlaritzako Kultur Sailak sorkuntza artistikoaren alorrean benetako beharrak zeintzuk diren jakiterik izango luke, besteak beste, Proiektuen Bulegoa edo/eta Bitartekotza Organoa sortzeko erabakia hartu baino lehen.
- Euskal Herriko erakundeei beren arte-politiken akatsak detektatu eta zuzentzea ahalbidetuko dien informazio-sarea diseinatzea (Euskal Kulturaren Behatoki Estatistikoa).

- Ingurune soziokulturala behatu, eta aldizka-aldizka jardueretako ahuleziak eta akatsak detektatuko lituzkeen Behatoki bat sortzea, eta alderantziz ere bai. Oso interesgarria litzateke behatoki horren garapena bera zaintzea.

6. Koordinazio eta finantziario publikoa

- Aisia, heziketa artistikoa eta ekintza profesionalak –duten lurralde-proiektzio eta proiektzio profesionalaren arabera– udaletxe eta diputazioen eta Eusko Jaurlaritzaren artean banatuko diren lehentasun-mapa bat ezartzea. Era horretan bikoiztasunak saihestu eta sinergiak lortuko lirateke.
- Kultur arloari dagokionez, foru konpetentzien eksklusibotasunaren logika hautsiko duen elkarrizketa-metodologia ezartzea. EAE osoaren ikusmen estrategikoa kontzertazio bidez ezarri behar litzateke, Eusko Jaurlaritzak lidergoa izanda.
- Jarduketa publikoak sorkuntza garaikidean zenbateko aurrekontua eta zein arlotan izan lezakeen zehaztea.
- Proiektu Bulego honen bidez arteaz diharduten erakunde eta departamentuen arteko komunikazio-lineak martxan jartzea, eta behar duen edonorentzat kultur “baliabideen mapa” eskura jartzea; erakundeei, ekipamenduei, arteguneei, aurrekontuei eta abarri buruzko informazioa izango luke aipatu mapa horrek.
- Eusko Jaurlaritzako beste sailei kultur jardueraren aurrekontuetan parte har dezaten eskatzea.
- Sortze/ekoizpen plastiko eta ikusizkora bideratutako gastu publikoa areagotzea.

LEHENTASUNEZKO JARDUERA ILDOAK

1. Eusko Jaurlaritzako beste sailei kultur jardueraren aurrekontuetan parte har dezaten eskatzea.
2. Proiektu Bulego honen bidez arteaz diharduten erakunde eta departamentuen arteko komunikazio-lineak martxan jartzea, eta, horrela, behar duen edonorentzat kultur "baliabideen mapa" eskura jartzea; erakundeei, ekipamenduei, arteguneei, aurrekontuei eta abarri buruzko informazioa izango luke aipatu mapa horrek.
3. Baliabide publikoen erakunde kudeatzaile izango den Proiektu Bulegoa eratzea. Bulego horrek proiektu zehatzei laguntzak emango lizkieke, eta beste bide batzuetatik Jaurlaritzaren laguntza egonkorrik ez duten ekoizle eta kultur agenteei uneko diru-laguntzak emango lizkieke.
4. Kultur bitartekotzan ezaugarri hauek izango lituzkeen master-motaren bat sortzea: profesionala, bere funtziorako egokitua, nazioarteko bokazioduna (ikasleak, irakasleak), nazioarteko sortzaileak gonbidatuko lituzkeena esperientziak trukatzeko eta lurraldeko panorama ezagutzeko. Sarea osatzeko, komunikazio-fluxuak eratzeko eta mugak irekitzeko modu interesgarria da.
5. Ingurune soziokulturalaren bilakaera aztertu eta aldizka-aldizka jardueretako ahuleziak eta akatsak detektatuko lituzkeen Behatoki bat sortzea, eta alderantziz ere bai. Oso interesgarria litzateke behatoki horren garapena bera zaintzea.
6. Artistaren eta erakundearen arteko harremanetarako protokoloa ezartzea: lan-kontratuak egitea, artistaren errealitatearekin bat datorren arau fiskalak doitzea eta abar.
7. Sorkuntza garaikidearekin konprometituta dauden zentro eta ekimenei pizgarriak ematea; euskal ingurune sozial eta kulturalarekin erlazionatutako artisten lanarekin konprometituko diren zentro eta ekimenak izan beharko dute.

8. Aurrekontu-partida bat izatea graduondoko beketarako eta beste gobernu batzuekin eta nazioarteko erakundeekin truke-programak bideratzeko, euskal artearen aremuan profesionalak trebatzeko helburuarekin elkarlanerako hitzarmen egonkorrak eginez.
9. Gaur egun Eusko Jaurlaritzak arte plastikoaren eta ikusizkoaren promozio- eta hedatze-alderdiei ematen dien lehentasunaren aurrean, sorkuntza eta ekoizpen artistiko bisualari laguntza areagotzea.
10. Administrazio publikoaren eta gizarte zibiletik datozen proposamenen arteko "bitartekaria" izango duen bitartekotza-protokoloa ezartzea; horrela, ekoizpena, hedapena eta trebakuntza laguntzeari dagozkion ekintzen eta erabakien koherentzia bermatu ahal izango da.
11. Euskal Herriko erakundeei beren arte-politiken akatsak detektatu eta zuzentzea ahalbidetuko dien informazio-sarea diseinatzea (Euskal Kulturaren Behatoki Estatistikoa).
12. Sortze/ekoizpen plastiko eta ikusizkora bideratutako gastu publikoa areagotu
13. Beharrezkoa da artisten ibilbide profesionala bideragarri izan dadin bideratutako jarduerak egitea. Artista gaztea laguntza publikoek balia daiteke puntu bateraino; puntu horretara iritsita, profesionalki garatzeko aukera izan behar du. Horretarako, beharrezkoa da galerien enpresa-sarea eta artearen merkatua izatea. Mezenasgo-lege batek mesede egin lezake. Horrez aparte, profesionaltasuna frogatuta duten galeriei pizgarri fiskalak eman dakizkieke, edo proiektu arriskutsu edo, besterik gabe, atipikoetarako laguntzak eskaini.
14. Kultura kudeatzeko lanpostuen erregulazio-sistema bat arautzea: aretoetako eta museoetako zuzendariak (karguak izendatzea, karguen iraupena, haien kudeaketaren interesa, haien kudeaketaren kalitatearen balorazioa). Horrela, bakoitzaren programaren araberako garapena bermatuko litzateke, gorabehera politikoetatik at.